

noaia

**Kultur Birako egitaraua
laster iragarriko dute
usurbilkultura.eus
web orrialdean**

**Ekainaren 18an osteguna
herri batzarra, Usurbilgo
Larrialdi Mahaiak deituta**

**Errigorako produktuen
banaketa datorren astean
egingo da**

Marje

Argazkia: Iñaki Martínez de Urteaga

Bonu ugari saldu dira lehen egunetan

**gertuago.eus, herri merkataritza
sustatzeko atari berria**

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ALOKAIRURAKO PISUAK BEHAR DIRA,
ESKAERA HANDIARENGATIK!

ALOKAIRU SEGURUA

Zure etxerako inkilino bikaina
aurkituko dugu,
12 hilabeteko errenta bermatua.

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

BERRIRO ZUEKIN!
OSASUN NEURRI GUZTIEKIN

ANTXETA
jatetxea

sekaña
ERRETEGIA



AGINAGA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

**Ekaina
1 - 19**



PREMATRIKULA

nola egin?

- on-line: ikasgunea.euskadi.eus
- Ikastetxean: txanda hartuta:

☎ 943364600

**Dokumentazioa:
DNI + expediente akademikoa**

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

Egon behar ez luketen “mendixkak” Andatzan



Andatza aldetik, lehendik ere zenbait salaketa heldu izan dira NOAUA!ko erredakziora. Azkena larunbat honetan bertan jaso dugu, herritar batek sare sozialen bitartez igorria. Orri honetan jaso dugun irudiak adierazi beharrekoa argi adierazten duen moduan, An-

datzara bidean, ondoko “mendixka” aurkitu zuen. Antena pareko pinudian egina dago. Beste herritar batek, hala kontatu zuen Facebook-en: “Andatzako igoeran horrelako bi hondakin mendi utzi ditu norbaitek, batek trikuharri bat estali du ia”.

Santueneko erriberako bi aulkiren txikizioa



Santuenetik Txokoalderako erriberan gertatu zen pasa den asteburuan. Herritar batek bidali digun argazkian ikus daitekeen moduan, eserlekuko egurrezko oholak ebaki eta ostu egin dituzte. Udalak margotu berriak zituela jakinarazi digu herritar honek.

Sare sozialen bidez, beste auzotar batek bere haserre eta salaketa mezua zabaldu nahi izan zuen. “Santuenetik Txokoaldera doan bidean eserleku hauen oholak moztu eta eramane dituenak jakin dezala kaltetu zuzenak auzotarrak izan garela. Onartezina”.

Laburrean

Posta bidez bozkatzeko aukera

Maiatzaren 19an zabaldu zen posta bidez bozkatzeko aukera. Eskaera Correoseko bulegoan edo telematikoki correos.es web orriaren bidez uztailaren 2a baino lehen bidera daiteke.

Begiraleentzako eta euskara ikasleentzako dirulaguntzak

Euskara ikasteko nahiz aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituzte-entzako diru-laguntzak adostu dituzte Tokiko Gobernu Batzordean. Oinarriak usurbil.eus orrian dituzue ikusgai.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaUA

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaUA.eus // www.noaUA.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoria:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenatzaia: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaUA.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaUA.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aritz Gorriti

Tokikoa gertuago

Bizimodua inoiz baino gehiago mugatua izan dugu asteotan. Egun batetik bestera etxe barrua bilakatu zaigu bizilekua, lantokia, zaintzen gunea edota aisialdirako eremua. Harremak etxe barruan edo etxetik telematikoki bideratu ditugu.

Auzoak ere une batzuetan urrun geratu bazaizkigu, pandemia aurretik kasik etxe azpian genituen ondoko udalerrak ia atzerriko lurretan kokatuak bailiran sentitzera ere helduko ginen. “Azkar batean” edonora, edonoiz joan eta itzultzen ginen, baina egun batetik bestera etxe ondora mugatu behar izan dugu bizimodua. Isolatzea behartu gaituztenean ondokoa, gertukoak ezinbestekoak bilakatu zaizkigu. Etxekoak ez baziren, etxe ondokoak. Etxe ondokoak ez baziren pareko bizilagunak. Edo teknologia berriek, Inter-

netez nahiz telefonoz gerturatu dizkigutenak.

Ikusi da, nola gugandik 500 kilometrora diseinatutako plan homogeneoek, arau eta betebeharretan (tokian tokiko erakunde eta herritarren eskubideak bigarren edo hirugarren maila batean utzita) berdindu nahi gintuzten horiek, etxe ondora ekarrita ez duten, etxetik bertatik hartutako neurrien gertutasun bera.

Gertuen zuten errealitate lantzenetik urrunera hedaturiko erabakiek sarritan ez dute etxe ondoko diagnosi ezagun eta zehatzetik abiatuta hartzen diren neurrien pareko eraginkortasun bera izaten. Tokian tokiko errealtatea ezberdina, anitza baita. Krisialdiak orokorrak izan arren, tokian tokiko berezitasunak izaten baitituzte.

Bizi dugun krisialdi sakon honi gertuagotik erantzunda, egokiago kudeatzen dela argi

geratu da. Gertutasunean ematen da herritarren arteko harremana, herritarren eta haiengandik gertuen dauden tokiko erakundeena; udalena. Gertuen ditugunen behar eta egoerak ezagutzen ditugu, eta gertutasun handienekoa izaten da, horiei erantzuten ahalegintzen den lehen “sare soziala”. Ikusi bestela, herri honetan landu eta abian jarritako protokolo, laguntza eta egitasmo anitzak.

Gertukoak ez du pareko lehiakiderik izan bizi dugun krisialdi honetan. Ez kolektibo gisa, norbanakoentzat ezta ere. Auzokidea, ondoko balkoikoa, parez parekoa izan dugu aliatu. Eta kalera irtendakoan...

Kaleak hutsik, herri giroa itzalita, isilpean, lozorroan. Iru-di benetan harregarria. Egunerokoan, agendan begiratu edo ez, plazara jaitsi eta denetarik ekitaldi eta mugimenduetan murgiltzera ohituak ginen.

Orain lehendik ere zaindu behar genituen, eta orain, arrazoi gehiagorekin babestu behar ditugunak mantendu dute herria bizirik; beti hurbil baina orain inoiz baino gertuago izan ditugun herri merkatariek. Jo eta su lanean ari ziren saltoki atarien ilaretako elkarrizketak izan dira konfinamendu asteetan kalean izan diren elkarrizketa bakarretarikoak. Herri bizitza bermatu diguten eta bizirik mantendu duten bakarrak.

Izena entzute hutsak hontzikara eragin eta “normaltasun berria” deitzen dioten hori bidean datorkigu. Urrun geratu zaiguna hurbilago dugun honetan, mundu mailako erronkei lokaletik erantzuteak duen garrantzia errealitate bilakatuta ikusi ostean, gertuen izan ditugunez oroitzeko garaia dugu. Gertuago ditugunengana gerturatzen segitzekoa.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

Txaramunto kalea itxita ekainaren 15ean

Ekainaren 15ean Txaramunto kalea itxiko duela iragarri du Udalak. Kale horretan da birgaitu eta handitze lanetan duten Zumarte Musika Eskolaren egoitzaren atzealdea. “Garabi bat erabili dute hainbat hilabetez; kentzeko unea iritsi da, eta datorren astelehenean izango

da, hilaren 15ean”. Mugimenduok egin ahal izateko, ibilgai-luek ezingo dute ez sartu eta ez atera, datorren astelehenean, 8:00-18:00 artean. “Atarietan oharra jarriko du enpresak, bizilagunak jakinaren gainean egon daitezen”, ohartarazi du Usurbilgo Udalak.

Mobilizazio eguna ekainaren 19an


Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak mobilizazio eguna deitu du ekainaren 19rako, “Lehenik bizitza! Etxean geratu naiz. Orain kalera aterako gara” aldarripean.

Mobilizazio eguna prestatzeko eskualdeko bilera egitekoak ziren ekainaren 10ean

Hernanin. “Norbanako zein kolektibo guztiak elkarrekin gure eskubideak aldarrikatzeko ordua da!”, ohartarazi dute deitzaileek.

Xehetasun gehiago datorren aldizkarian; informazio gehiago eskubidesozialenkartata.com atarian.

Komikia



Elkartasuna eta eskertza adierazpena adostu zuten azken udalbatzarrean

Covid19-ak eragindako osasun krisialdiak udal ordezkari guztiak batu ditu. Gai honi buruzko erakunde adierazpena onartu zuten aho batez EHBilduk, EAJ-k eta PSE-k, maiatzaren 28an egindako udalbatzar telematikoa.

“Inoiz baino gehiago”, pandemiaren hedapena galarazteko batuta egoteko deia egiten duen adierazpenak honakoa dio 8 puntutan:

■ Usurbilgo Udalak bere doluminak adierazten dizkie Covid19-aren ondorioz hildako guztien familiei. Eta senitatekoa galtzeak eta haren bizitzaren azken egunetan bere ondoan ezin egon izanak familia horiei eragindako samina partekatzen du eurekin.

■ Usurbilgo Udalak gaixotasun honek kutsatu dituen pertsona guztiei herriaren babes solidarioa helarazi nahi die. Eta ahalik eta azkarren senda daitezen opa die.

■ Usurbilgo Udalak eskerrak eman nahi dizkie usurbildarrei lehen unetik erakusten ari diren jarrera eredugarriagatik, elkar-zaintza, elkartasuna eta erantzunkidetasuna oinarri. Halaber, konfinamendua arintzeko fasean bagaude ere, ez lasaitzeko, arduratsu izaten jarraitzeko eta erakunde ezberdinetatik gomendatzen ari diren babes eta osasun neurriak betetzeko eskatu nahi diegu.

■ Usurbilgo Udalak gure herriaren esker ona adierazi nahi die ospitaleetan, egoitzetan edo osasun-zentroetan, gau eta egun eta etenik gabe, gaixoak zaintzen eta Covid19-ari aurre egiten ari diren osasun-langile guztiei.

■ Usurbilgo Udalak eskerrak ere eman nahi dizkie, besteak beste Covid19 birusetik babestuta egoteko, euren lanpostuetan



Erakunde adierazpena onartu zuten aho batez EHBilduk, EAJ-k eta PSE-k, maiatzaren 28an egin zuten udalbatzar telematikoa.

USURBILGO UDALA

“Gure esker ona adierazi nahi diegu ospitaleetan, egoitzetan edo osasun-zentroetan, gau eta egun eta etenik gabe, gaixoak zaintzen eta Covid19-ari aurre egiten ari diren osasun-langile guztiei”

lanean jarraitzen duten langile guztiei, adibidez, zahar-egoitzetako langileei, supermerkatuetako langileei, garbitzaileei, udal langileei eta udaltzainei eta suhiltzaileei, garraiolari, irakasleei, etab.

■ Usurbilgo Udalak osasun-sistema publikoari babesa eskaintzeaz gainera, herritar guztiek osasun-arreta jasotzeko eskubidearen unibertsaltasuna defendatzeko eskatzen die eskuduntza duten gobernuei.

■ Usurbilgo Udalak eskuduntza duten gobernuei ere eskatzen die Covid19 gisako pandemiarekin amaituko duten txertoak lortzeko osasun-ikerketarako baliabide gehiago bideratzeko.

■ Usurbilgo Udalak erakunde publiko guztiei (Europako Batzordea, Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldun-

diak eta Udalak) elkarren arteko ahalik eta lankidetzaz zabalena eskatzen die, Covid19-ak eragin duen krisiaren ondorioak arintzeko ekimenak eta laguntza publikoak koordinatzeko. Eta zehazki, une honetan okerren pasatzen ari diren talde zaurgarrienei laguntzeko.

Euskara eta aisialdi arloko dirulaguntzak

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Epea: ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean.

Behar ekonomiko bereziak dituztenentzako euskara ikasteko dirulaguntzak

Epea: GAO-n argitaratzen den egunetik uztailaren 9ra bitartean [biak barne].

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzak

Epea: ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean.

Hiru deialdi hauetako oinarriak www.usurbil.eus helbidean aurkituko dituzue.

Balio gabeko espedienteak suntsitu beharra, artxibategiko leku faltari aurre egiteko

Udal artxibategian duten espazio faltari aurre egiteko iazko urte amaieran hartutako erabaki bera hartu dute bigarren. Balio juridiko edota historikoa galdu duten Gizarte Zerbitzuetako hainbat espediente suntsitzea erabaki zuten osteguneko udalbatzar telematikoa; 23 mota ezberdinetako 1.427 espediente eta 77 kutxa deusezteia hain zuzen. Proposamenaren alde bozkatu zuen EHBilduk; PSE eta EAJ-k kideak abstentitu ziren.

Luze joko du prozesuak

Udal artxibategian duten espazio falta eta segurtasun neurrien gabezia arazo bilakatu zaie. Arazo honi aurre egiteko, gunea txukundu eta bertan zer duten diagnostikatze prozesua abiarazi zuen Udalak iaz. Etorkizunean balio informatibo edota historikoa zuten espedienteak betiko gordetzea erabaki zuten artxibategian. Aldiz, balio juridiko edota historikoa galdua zutenak suntsitzea. Lehen fase hartan, 2019. urte amaieran, Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta oinarritzko errentaren laguntza eskatzeko espedienteak suntsitu ziren.

Udal gobernu taldetik iragarri dutenez ordea, “prozesu luzea izango da” eta erabaki hau gehiagotan hartu beharrean aurkituko direla iragarri zuten udal gobernu taldetik. Dokumentuak Baloesteko eta Aukeratzeko Batzordeak ezarritako irizpideekin, gardentasunez eta erregistro eta kontrol zehatza bermatuz jorratuko dute prozesu hau.

Txalaka: “Gorakada bat izan genuen lehen asteetan”

Konfinamendu garaian lanean aritu ziren saltokien iritziak batu ditugu azken asteetan. Txalaka, Usurbil Optika, Iratze natur denda, Al-Rai barazkiak eta Laurok liburudendakoen hitzak topatuko dituzue segidan.

NOAUA! Itxialdian, lan gehiago egin duzue edo berdintsu aritu al zarete?

Igor Matxain. Lehen asteetan gorakada handi bat izan genuen. Taberna guztiak itxi zituzten eta jendeak etxean geratu behar zuenez, gehiago kontsumitzen zuen dendetan.

Alkohola ere erosi daiteke Txalakan. Salmentan igarriko zen, ezta?

Bai. Tabernak itxita zeudenez, jendeak etxera eramaten zuen garagardoa eta sagardoa.

Ilarak sortu dira noiznahi. Pa-



Lau pertsona atenditzen dituzte orain denda barruan eta, horretaz gain, etxerako zerbitzua indartu dute.

ELKARTASUN SAREAZ

“Herritar sareak lan ona egin du. Salbazioa izan da jende helduarentzat”

zientzia beharko da.

Ez da batere erosoa eta presioa sortzen du. Baina moldatu behar. Ez dago besterik. Jendeak badaki zer dagoen eta alde guztietan igualtsu dago gainera. Ez dugu arazorik izan.

Hasieran komuneko papera agortu zen. Ondoren irina eta legamia. Eta hemen, produkturen bat agortu al zaizue?

Ez, denetarik izan dugu beti.

Bezero berri bat agertu da asteotan. Kanpoan erosten zuena baina konfinamenduarekin herriko dendetara hurbildu dena. Txalakan ere gertatu al da?

Bai, batzuk igarri ditugu. Saltoki handietara joateko fobia

pixka bat ere bada oraindik.

Nork daki, aurrerantzean bertako saltokiei garrantzia handiagoa emango diegu akaso.

Bai, gero eta gehiago. Gazteek dakarkite joera hori. Ez da oraingoa, konfinamenduaren aurretik datorren zerbaite da.

Bonu-sistema bat jarri berri da martxan. Zer iruditzen?

Guk lanean jarraitu dugu. Galdi egon direnentzat atera dituztela uste dut eta saltoki horiek aktibatzeke ondo ikusten dut.

Funtsezko zerbitzu bat eskaini duzue asteotan. Jendeak eskertu al du?

Bai. Konfinamendua ezarri zenean, denda kanpoan zerbitzatzen hasi ginen. Ahalegin handia egin dugu eta jendeak eskertu du. Gure bezeroengatik egin dugu, kutsatze-arriskua txikiagoa izan dadin.

Iratze natur denda: “Erosteke modua erabat aldatu zen konfinamendu garaian”

NOAUA! Etxealdiak lan gehiago ekarri zuen hona edo berdintsu aritu al zarete?

Maite Irazusta. Berdintsu ez, egoera erabat aldatu zelako. Salmentei dagokionez, normaltasun batera itzuli gara egun hauetan. Baina konfinamendu garaian, erosteke modua erabat aldatu zen. Gauza ezezaguna zen, beldurra zuen jendeak, ez genekien zer gertatuko zen... Eta erosketa-prebisioak aldatu egin zituen jendeak.

Behar genuena baino gehiago erosten genuen akaso?

Bai. Gainera ordutegi murriztu bat zegoen eta noiznahi ezin zen atera. Gazteak gurasoentzako erosketak egitera etortzen ziren, edota bilobak aitona-amonentzat. Jende berria ere hurbiltzen hasi zen.



“Jendeak badaki zein den egoera eta alde horretatik lasai ibili gara”.

BONU SISTEMAZ

“Ondo iruditzen zait. Une honetan laguntza guztiak ondo etorriko dira”

Bestetik, etxean egonik, askok etxean sukaldatzeko aprobatxatu zuten.

Hemen ere irinarik eta legamiarik gabe geratu al zineten? Bolada batean legamiarik gabe egon ginen, bai.

Aforoa mugatu zenuten eta halaxe jarraitzen duzue oraindik. Banaka sartzen dira, hau denda txikia baita. Jendeak badaki zein den egoera eta alde horretatik la-

sai ibili gara.

Batzuk orain deskubrituko zuten herriko dendek eskaintza. Iritzi berekoa al zara?

Hemen bizi den jendeak jakin badaki hemen gaudela. Batzuk lanean hasi badira berriro, lehengo ohituretara itzuliko ziren akaso.

Baldintza zailetan aritu zarete lanean. Jendeak baloratu al du?

Bai, konturatu dira. “Gu momentu jakin batzuetan ateratzen gara, erosketak egin eta etxera. Zuek hemen zaudete egun guztian, jendaurrean”. Bezeroek eskertu dute, bai.

Bonu-sistema bat jarri berri da martxan. Zer iruditzen?

Ondo. Une honetan laguntza guztiak ondo etorriko dira.

Usurbil Optika: “Oso aproposa da bonu-sistema”

NOAUA! Funtsezko jarduera izanik, denda zabalik izan duzue uneoro. Lanak handitu egin al zaizkizue asteotan?

Usurbil Optika. Gehiago ez da izan. Urgentziak atenditu ditugu batez ere, salmenta batzuk ere izan ditugu baina lan gehiago ez da izan.

Ordutegia egokitu behar izan al zenuten?

Ez dugu aldatu. Ordutegi berarekin aritu gara lanean.

Segurtasun arrazoiengatik aforoa kontrolatu beharra zegoen. Ondo moldatu al dira zuen bezeroak?

Ondo egokitu gara, ez dugu inolako arazorik izan. Jendeak baimena eskatzen zuen sartu aurretik.

Beste denda batzuetan esan digute bezero berri bat agertu dela. Lehen etortzen ez zena.



“Jendeak eskertu egin digu lanean jarraitu izana”, adierazi digute Optikan.

USURBIL OPTIKA

“Bonuena oso interesantea iruditzen zaigu. Guk ere hartuko dugu parte”

Bai, horrelako erosleak ere izan ditugu aste hauetan.

Nork daki, akaso bertakoa eta gertukoa gehiago baloratuko

dute aurrerantzean.

Nik uste dut baietz. Atentzio pertsonalizatua jasotzen dute hemen, ez gara kate handi batetakoak... Eta jendeak eskertu egin du lanean jarraitu izana.

Bonu-sistema bat jarri berri da martxan. Udal ekimen hau zer iruditu zaizue?

Oso aproposa. Oso interesantea iruditzen zaigu eta guk ere parte hartuko dugu.

Herriko komertzioa sustatzeko lagungarri izango da, ezta?

Beharrezkoa da, eta komeni da mugimendua. Betaurreko batean torloju bat jartzeko bada ere, komeni da mugimendua. Jendea konturatu dadin, iruditzen ez zaizkion zerbitzu asko ere badaudela bertan.

Bonu-sistemak kontsumoa sustatu dezake gainera.

Jendeak nahi du. Beste herri batzuetan martxan jarria zegoela eta duela bi astetik galdetzen hasiak zeuden hemen ere.

Eguzkitarako betaurrekoak saltzeko garai ona izango da hau.

Bai, baina graduatu transparentea ere urte osoan saltzen da. Egia da udak eguzkitako betaurrekoak erosteko ilusioa ekartzen duela, baina graduatu transparenteekin urte osoan aritzen gara.

Al-Rai barazkiak: “Jendeak bertan geratu behar izan duenez, guk ere lan gehixeago izan dugu”

NOAUA! Fruta eta barazkiez gain, bestelako elikagaiak saltzen dituzue. Baita garbikariak ere. Konfinamenduak iraun duen denboran, lan gehiago izan duzue ala antzeko martxan aritu al zarete?

Al-Rai denda: Lan gehiago egin dugu, bai. Jendeak bertan geratu behar izan duenez, guk ere lan gehixeago izan dugu.

Segurtasun neurriak hala behar-tuta, hemen ere maskara jarri beharra dago dendan sartu ahal izateko.

Maskarekin eta eskularruekin sartu behar du jendeak. Eta maskara eta eskularru gabe datorrenari ez diogu denda sartzeko uzten.

Bezeroak ondo errespetatzen al ditu arauak?



“Betiko bezeroa izan dugu, egunero etortzen dena”, adierazi digute Al-Rai dendan.

AL-RAI BARAZKIAK

“Lehen bi asteetan arazoak izan genituen komuneko paperarekin, lioxibarekin, legamiarekin eta irinarekin. Baina orain denetarik dugu”

%90ak oso ondo ulertu du eta ez dugu arazorik izan. Beste batzuk maskara poltsikoan zuten eta jarri gabe sartzen ziren, konturatu gabe. Baina esan orduko, barkamena eskatu eta berehala jartzen zuten.

Ilararak sortzen dira tarteka. Pa-

zientzia behar da horrelakoetan.

Bi pertsona bakarrik sar daitezke. Baina jendeak badaki itxaron behar duela. Ez dugu arazorik izan.

Beste saltoki batzuetan lehen-gairik gabe egon ziren hainbat egunez. Komuneko paperarekin, lioxibarekin, legamiarekin eta irinarekin. Baina orain denetarik dugu.

Lehen bi asteetan arazoak izan genituen komuneko paperarekin, lioxibarekin, legamiarekin eta irinarekin. Baina orain denetarik dugu.

Garai zaila izan da eta zuek lanean jarraitu duzue, herritarren zerbitzura. Esker oneko hitzik izan al duzue egunotan? Jendeak eskertu du, bai.

Laurok liburudenda: “Eskulanetarako materiala oso ondo saldu dugu hemen”

Laurok dendan mugimendua etengabea da. Pren-tsa eta liburuetatik hara-tago, eskaintza oparoa da. Beti dago norbait. Konfinamenduan eutsi egin zioten lan jardunari. Nahiz eta lanerako garai erraza ez izan, egoera berrira egokitzten asmatu dute. “Maskarilak, hidrogela eta eskularruak asko saldu ditugu. Normalean, ez ditugu horrelakoak izaten baina lortu genituen. Eta oso ondo saldu ditugu, jendeak behar zituelako”.

NOAUA! Etxealdiak iraun duen denboran, nola joan dira gauzak hemen?

Laurok liburudenda: Gauza batzuk askoz gehiago saldu ditugu: prentsa, denborapasak, eskulanetarako materiala umeentzat... Jendeak denbora bete behar zuen nolabait. Talde batzuk, Susana Martinek bezala, umeak entretenitzeko gauzak egin dituzte eta eskulanetarako materiala oso ondo saldu dugu.

Bestalde, gozoki asko saltzen ditugu hemen, eta makinan ere bai. Eta hori dena hilda egon da.

Beraz, alde batetik produktu



Aforoa mugatu behar izan zuten denda barruan baina “ondo etorri zaigu”, azaldu digute Lauroken. “Era honetan bezeroarekiko atentzioa hobea baita”.

LAUROK LIBURUDENDA

“Egoerara moldatu gara eta momentuan behar ziren produktuak ekarri ditugu. Gela, maskarak, eskularruak... Horrek salbatu gaitu”

batzuk asko saldu ditugu, baina beste produktu batzuk ez. Batak bestea konpentsatzen al

du? Ba ez. Baina beste produktu batzuk ere saldu ditugu.

Gela eta maskarak, adibidez.

Guk momentu oro izan ditugu maskarilak. Inon bilatzerik ez zegoenean, guk bagenituen. Hidrogela eta eskularruak ere saldu ditugu. Normalean ez ditugu horrelakoak izaten baina lortu genituen. Eta oso ondo saldu ditugu, jendeak behar zituelako. Egoerara molda-

tu garela esan daiteke.

Hori ere garrantzitsua izango da, ezta?

Maskarak egiteko materiala ere saldu dugu, jostorrazak, gomak... Sekula saldu ez ditugunak. Baina egoerara moldatu gara eta momentuan behar ziren produktuak ekarri ditugu. Horrek salbatu gaitu.

Erosteke modua ere aldatu egin da. Zuek ere banaka atenditu dituzue bezeroak, ezta?

Guk uneoro atenditu dugu denda barruan. Une batzuetan aforo maximoa hiru pertsonakoa izan zen baina gurean egunkari bat edo aldizkari bat saltzeko ez da denbora asko behar. Fotokopia batzuk egiteko ere ez da denbora asko behar. Opari baten bila etortzen denak denbora gehiago behar du, baina normalean salerosketa azkarrak dira gureak, horregatik ez dira ilara handiak egiten.

Patsadaz hartu dituzue gauzak.

Jendeak ikasi du era horretan erosten eta guri oso ondo etorri zaigu. Era honetan, bezeroarekiko atentzioa hobea da.

“Lan asko izan dugu fotokopiekin”

NOAUA! Umeen eskolako lanak egiteko, gurasoek fotokopia gehiago egin behar izan dituzte. Inpresoren salmenta ere igo egin omen da asteotan, ezta?

Laurok liburudenda. Bai, lan asko izan dugu fotokopiekin. Inpresorentzako tintak ere asko saldu ditugu. Une batzuetan, gaizki ibili gara tinta modelo jakin batzuekin.

Okindegietan legamia bezala,

hemen inpresorentzako tinta izan da agortu dena.

Bai, inpresoretako modelo batzuk oso konplikatuak zirelako lortzen.

Premia berriak sortu zirenez, kontsumoaren joerak ere aldatu egin ziren.

Gainera, aste batzuetan behintzat, Internet bidezko salmentak ez zuen ohi bezala funtzionatu. Saturatuta egon ziren eta zerbitzuak epe luze-

ra ematen zitzuten.

Beste gauza batekin ere jabetu gara: etorri da jende bat Usurbilen bizi dena, baina ez genuena ezagutzen.

Herrian bizi baina arrazoi ezberdinak medio erosketak herritik kanpo egiten dituen. Dena den, Usurbilgo merkataritzaren eskaintza ezagutu du etxealdiak iraun duen denboran eta akaso aurrerantzean gehiago baloratuko dute ber-

takoa eta gertukoa, ezta?

Ea hala den. Hasieran bai, hala izan zitekeela uste nuen. Baina uste dut gauza puntuala izan dela. Lehengora bueltatuko garela.

Orain badakite hor zaudetela. Eta zuen lan egiteko modua- ren berri dute.

Bai baina bestetik, hilabete hauetan jende batek online erosten ikasi du eta jabetu da ez dela hain zaila.

Ekaineko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

**ARIES**

Aurten festa guztiak desberdin ospatu beharko dituzu, baina lasai, aurkituko duzu eta gozatze-ko bidea. Hileko aholkua: Ez, Sanjoan sua ezin duzu balkoian egin!

**CANCER**

Azkenean zure azukre koxkorrekin egoteko aukera izango duzu, biba! Hileko aholkua: Babes neurriak hartzea ondo dago, baina maskarillekin muxu ematea gehiegitxo da, ezta?

**LIBRA**

Lanera bueltatu behar duzu baina seme-alabek etxean jarraitzen dute ikasten. Zer egin? Hileko aholkua: Bietako bat; edo umeak lanera ematen dituzu edo nagusia ekartzen duzu etxera!

**CAPRICORNUS**

Koadrilarekin planak berreskuratuko dituzu hilabete honetan, eta izugarri gozatu duzu. Hileko aholkua: Noizean behin utziezu arnas pixka bat hartzen!

**TAURUS**

Maskarillarekin nazka-nazka eginda bukatuko duzu batzuetan, baina badi-tu bere abantailak. Hileko aholkua: Diseinuzko batzuk egin eta horrela moda-modan egongo zara!

**LEO**

Arraroa da, baina faltan botatzen duzu etxetik ateratzea ia debekatuta zegoeneko garaia. Dena sinpleagoa zen. Hileko aholkua: Egin doministiku pare bat eta ikusiko duzu nola bidaltzen zaituzten berriro konfinamendura!

**SCORPIUS**

Etap berri bati ekingo diozu hilabete honetan, arrakasta handiarekin. Hileko aholkua: Azken bi hilabeteetan egin dituzun ogi eta bizkotxo pilarekin onena okindegi bat irekitzea izango duzu!

**AQUARIUS**

Terrazetara atera nahi duzu baina oraindik errespetu pixka bat ematen dizu maskarillarik gabe ateratzeak. Lasai hartu. Hileko aholkua: Zulo txiki bat egin pajitarentzat eta ez duzu kezkatu behar izango!

**GEMINI**


Hondartza dinamikoez gozatzeko garaia izango duzu hauxe. Hileko gomendioa: Kontuz, eguzkiarekin, langostinoak plantxan baino gorriago jarriko zara eta bestela!

**VIRGO**

Bidaiazteko gogoz zaude aspaldidanik, eta ekaina hilabete egokia izango da horretarako. Hileko aholkua: Puntapax, erriberako ibilbidea, Arratzaingo buelta,... destino zoragarriak dira eta ez dute inoiz hutsik egiten!

**SAGITARIUS**

Zaila egiten zaizu aspal-dian ikusi gabeko lagun eta senideei besarkadak eta muxuak ez ematea. Hileko aholkua: Zure burua plastifikatzea izango duzu hobere-na!

**PISCIS**

Normaltasun berria delakoan anormaltasun ugari aurkituko dituzu, baina ez duzu galdu behar pazientzia. Hileko aholkua: Ondo etorriko zaizu yoga egiten hastea: OMMM...

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Kima
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zaintza eta elkartasuna ehuntzen

Maskarak izan ditugu hizpide azken asteotan; noiz, non, nola edota zer motatakoak erabili behar genituen. Konfinamendu hasieran eguneroko bizimodurako ez zituzten nahitaezkoztat jo, gero zenbait guneetan erabiltzeko aholkatzen hasi ziren, eta orain ezinbestekoztat jo dituzte, bereziki bi metroko distantzia bete ezin dugun egoeretan. Are gehiago toki itxietan, derrigorrezkoak dira; besteak beste sal-tokietan.

“Deseskalatze” prozesu honetan, maskarek konfinamenduan zehar egiten aritu garenari segida ematea dute helburu; gure burua eta ondokoak babestea, elkar zaintzea. Farmazietan ditugu eskuragarri, baina gogoan izango duzuen moduan, lehen asteetan ez zegoen nahi adina aurpegirako estalki denontzat.

Horregatik, hilabeteotan, bizilekuak lantoki, ikasgela edota zaintza gune izateaz gain, ekimen solidarioen kabiak ere izan dira. Orbeldi Dantza Taldeko jostunen taldeari galdetu bestela. Maskarek ari garela, etxe girotik ehunka josi zituzten, oraindik erabilera derrigorrezkoztat jo ez arren, sudur eta ahoen estalki hauen gabezia nabarmena zegoen konfinamendu garaiko lehen asteetan. “500-600 bat guztira”, jostunen taldeko kide Ana Elizondok NOAUA!ri adierazi dioenez.



Lehen asteetan ez zegoen nahi adina aurpegirako estalki denontzat.

ORBELDIKO JOSTUNAK

Martxoa amaieratik apirilerako tartean, 600 bat maskara sortu zituzten. DYA-ra helarazi zituzten, beharrezkoa zuten eremuetan banatzeko

“Ezin ezetz esan”

Covid19-ak gogorren erasan zuen aste haietan, maskarak lantzeko bolondresak behar zituela jakinarazi zuen DYA-k. “Orbeldi Dantza Taldeko jostunak garenez, maskarak egiteko prest egongo ote ziren komentatu nien talde kideei”. Jostunek duten whatsapp taldean deialdia zabaltu eta bat egin zuten. “Ezin zen ezetz esan. Ahal denean elkarri lagundu behar gara. Anak idatzi zigu-

nean ahal genuen gehienok baiezkota eman genuen”, adierazi digu Maria Luisa Mugikak.

Kideen aldetik jasotako erantzunaren aurrean, “DYA-ra deitu nuen, josten ibiltzen garen taldea izan eta maskarak egiteko prest ginela jakinarazi genien”. Esan eta egin; bi egunera DYA-tik jaso zuten erantzuna; denda batek oso onak ziren bata batzuk utzi zizkiena eta “haiek askatu, oihalak moztu eta maskarak egiteko ia prest egongo ote ginen galdetu ziguten”.

Berehala, aldeztu aurretik zuten trebezia ehuntzen hasi ziren. Bi talde osatu zituzten; etxean josteko makinak zituztenak horretan, maskarak sortzen aritu ziren. Halako bitartekorik ez zuen beste taldetxo bat, jasotako oihalak askatu, moztu eta

jostunentzat prestatzen. Zortzi bat laguneko taldea guztira. Orbeldiko jostunak gehienak, baina baita ekimen solidario honetara batu ziren beste zenbait laguntzaile ere.

Lehen txandan sorta bat egin, eta “bidali genituen. Bizpahiru egunera gehiago egiteko prest ote ginen galdetu ziguten”. Guztira, martxoa amaieratik apirilerako tartean, bi txandatan 500-600 bat maskara sortu zituzten, ezinbestekoak izan arren gabezia nabarmena zen aste haietan. DYA-ra helarazi zituzten, haiek desinfekzio lan guztiak egin eta beharrezkoa zuten eremuetan banatzeko. Egin zituzten maskarek dago-kienez, “poltsiko bat aurrean jarri eta hor filtroa sartzen zaie”, Elizondok NOAUA!ri adierazi dionez.

Jostunak hartuemanetan

Bakoitza bere etxetik, bakarka baina talde lanean aritu dira Orbeldi Dantza Taldeko jostunak. “Ekarpen on bat egin da”, Mugikaren esanetan. Ekimen solidario honek gainera, hartuemanetan izan ditu. “Gero- neren arteko harreman horretan, esperientzia polita izan da”, Maipilar Pagolaren esanetan.

Polita eta aberasgarria. Garai zailetan ere elkarlanaren balioa gorai patzen duena. “Beharra dagoenean ahal dena egiten da, borondate onez”, Pagolak adierazi duenez.

Elkar zaintzarako ekimen solidario honetan parte hartu dute, baina talde lana bera ere elkarri lagunduz bideratu dute.

“Prekariatatean lan egitea zer den ikusi dugu, gauza sinpleenak ere falta zirenean. Gauza sinpleak izan arren, ezin duzu aurrera segi. Adibidez, josteko makinako orratz eskas samarra izan eta bat ere gabe geratu nintzen, non erosirik ez. Bati eta besteari deituta aurkitu nituen orratz horiek, konpondu

gara”, Maipilarren esanetan.

Talde lan horretara ohituak daudela aipatu digute. Elkartasun ekimen soila ez, aisialdiko ordu librean bizitzeko modu bat ere izan da ekimen hau. Jarrera da gakoa. “Borondatea jarritz gero gauza asko egin daitezke”, Maria Luisaren iritzian.

“Maskara jantzi beharra daukagu”

Maskaren erabilerari lotutako araudi eta aholkuak egokitzen joan dira erakundeak konfinamendua hasi zenetik. “Deseskalatze” prozesua abiatzearekin batera ezinbestekotzat jo dituzte gune itxietan edo 2 metroko distantzia errespetatu ezin den kasuetan. Gai honi buruz jostunek duten ikuspegia jaso nahi izan dugu. “Leku itxietan beharrezkoak direla uste dut. Dendetara eta, beti maskara eta eskularruekin joaten naiz”, dio Anak.

Maria Luisak berdin jakitzen du. “Mendira edo paseatzera noanean ez dut jantzen, baina herrira erosketak egitera ateratzean bai. Jantzi beharra daukagu”.

Prebentzio neurri guztiak beharrezkotzat jotzen ditu Maipilarrek. “Kontuz ibili behar da. Ez pentsatu maskarak eta eskularruak jantzteagatik seguru goazenik. Garbitasuna bermatu eta eskuak aurpegi edo begietara eramatea saihestu behar da. Eskuekin maskarak kutsatzen baditugu, dena barrura doa gero”.

Dantza Egun berezia

Orbeldiko jostun taldeko kide



Orbeldi Dantza Taldeko jostunen taldea. Argazkia artxibokoa da, 2017an egina.

MAIPILAR PAGOLA

“Ez pentsatu maskarak eta eskularruak jantzteagatik seguru goazenik. Garbitasuna bermatu eta eskuak aurpegi edo begietara eramatea saihestu behar da”

bat baino gehiago dantzaria ere bada. Dakizuenek, apirilaren 5ean ospatzekoa zen Dantza Eguna. Covid19-a tarteko ordea bertan behera utzi behar

izan zuten. Dantza egin, grabatu eta irudiak partekatzeko gonbita luzatu zuen Orbeldik apirileko lehen asteburu hartan. Beste era batera ospatu behar izan dute beraz. “Aurten balkoitik balkoira. Kalezarren bizi naiz, ilobak Errekatzik. Haiek dantzan eta ni haiei grabatzen aritu nintzen”, azaldu digu Maipilarrek. “Azkenean bakoitzak bere etxean egin genuen dantza. Grabatu eta bideo hauekin Orbeldik oso bideo polita egin zuen”, Anaren

esanetan.

Jostun gisa, urtean zehar hainbat konponketa lan bideratzen dituzte Dantza Egunari begira. “Aurten gainera ikurriña berria egin da”, Maria Luisak azaldu digunez. Dantza Egunean erakutsi ahal izan ez zena. “Datorren urtean izan beharko du, esperantza ezin galduko dugu”, Mugikak adierazi digunez. Josi, dantza egin eta egun horretan Orbeldiko kideekin egiten duten bazkaria estimatua dute.

“Urte batzuk daramatzagu elkarrekin”

Urteak daramatzate jostunek elkarlanean. “Esperientzia Eskolan ibiltzen gara. Dantza taldetik esan ziguten ia josteko zein geunden prest”, Maipilar Pagolak oroitu digunez. Izena eman eta Potxoenean hasi ziren jardunean. “Etiket gure makinak hartu, organ jarri eta joaten ginen Potxoenera”. Ikasturte honetan, covid19-a gure artera heldu arte, Orbeldik Oiardo Kiroldegian duen geletako batean zebiltzan josteta la-



Etxe girotik ehunka josi dituzte azken hilabeteotan.

netan. “Normalean zer falta arroparen konponketa lanak egiten ditugu, edo zaharki-

tu direlako kanpoko taldeek arropa bidaltzen digute. Josi, berriro egiten ditugu”, kontatu digu Ana Elizondok.

“Oso ondo eramaten gara”

“Urte batzuk badaramatzagu elkarrekin. Oso talde atsegina da, oso ondo eramaten gara”, Pagolak azaldu digunez. Aspetotan egindako ahalegina-
gatik talde osoa eskertu nahi dute. “Beste edozer behar badute, laguntzeko prest gaude”, Anaren esanetan.

“Gertuago.eus”, erosketa bonuak eskuratu eta herri merkataritza laguntzeko atari berria

Covid19-ak gogor kolpatu duen herri merkataritza suspertzen laguntzeko aukera ederra dugu eskura; gertuago.eus atari berria. Plataforma horretan konfinamendu garaian jarduera eten behar izan duten 30 saltokiren erakusleirio birtualak ditugu. Bakoitzak %20ko deskontudun erosketa bonuak jarri ditu salgai. Sartu, eskuragarri jarri dituzten bonuak erosi eta gero saltokietan xahutuz, asteotan inoiz baino gertuago izan ditugun herriko dendariak babes-teko aukera dugu.

Konfinamendu garaian zaindu gaituzten herriko merkataria babesteko gure txanda da orain. Online plataforma berri bat sortu du sektoreak eta Usurbilgo Udalak, covid19-ak eragin dien kaltea leuntzen laguntzeko; “Usurbilek zerbitzurik galdu ez eta Usurbilek herri bizi bat izaten jarraitu dezan”; gertuago.eus ataria hain zuzen. Web berri honetan, herriko saltokietan xahutu ahal izango ditugun bonuak eskuratu ahaliko ditugu; 20, 50 edo 100 eurokoak. %20ko deskontuarekin. Bonu hauen %80a erosleak ordainduko du, gainerako %20a Usurbilgo Udalak hartuko du bere gain. Eta dendariak, egitasmoa joan den astean Sutegin egindako ekitaldian nabarmentzen zen moduan, “%100a kobratuko du”.



Bonu hauen %80a erosleak ordainduko du, gainerako %20a Usurbilgo Udalak hartuko du bere gain. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

GERTUAGO.EUS

Herriko saltokietan xahutu ahal izango ditugun bonuak eskuratu ahaliko ditugu bertan; 20, 50 edo 100 eurokoak. %20ko deskontuarekin

Covid19-aren eraginez bizi izan dugun konfinamendu garaian, jarduera etenda izan duten herriko 30 saltokiek parte hartuko dute momentuz egitasmo honetan. “Deseskalatze” prozesua abiatzearekin batera, asteotan ireki dituzten negozio hauek, erakusleirio birtuala, txoko propioa dute jada gertuago.eus atari berrian.

Sektoreko langileak ikusgarri

Bonuak eskuratu nahi dituenak egin beharrekoa erraza da. Edozein gailu hartu (ordenagailua, mugikorra...), aipatu helbidean klikatu. Erosketak egin nahi ditugun saltokia hautatu; gremioka sailkatu dituzte. Saltoki bakoitzari aurpegia jarri diote; bertan lan egiten dutenena. Konfinamendu garaian, inoiz baino gertuago izan ditugula islatu nahi izan dute egitasmo honi jarri dioten ize-narekin, baita atari berri honetan zintzilikatu dituzten aipatu sektoreko langileen argazkiekin ere. “Zer egiten duten eta zein diren” herritarren aurrean agertu eta guztiok ezagutzea

nahi dute; “garai oso gogorak bizi izan dituzten” saltokion atzean pertsonak daudela nabarmendu. “Horrek gertutasun bat ematen dio; Usurbilgo dendariak eta zerbitzuetako arduradunak prest gaude berriz ere herritarren aurrean aurpegia emateko”.

Atari bizia izango da; webgune berrira sartzen garen bakoitzean, saltokien hurrenkera nola aldatzen den ikusi ahaliko dugu. Saltoki bakoitzak prezio jakineko (20, 50 edo 100 euroko) bonu kopuru zehatz bat jarriko du bezeroen eskura. “Herritarrek jakin behar du herritar askok erosiko dituztela bonuak eta agortzen joango direla”, ohartarazi dute egitasmo honen bultzatzaileek. Zenbat bonu eta ze preziotan nahi ditugun aukeratu eta txartelarekin ordaindu. Herritar bakoitzak, gehienez jota, 2.000 euro xahutu ahaliko ditu erosketa bonuetan. Bide hori osatuta, bonua une horretan bertan deskargatzeko aukera izango dugu edota erregistratzerakoan eman dugun e-posta helbidean ere jaso ahaliko ditugu.

Webgune berri honetan lehen aldiz sartzen garenean hain zuzen, erregistratu egin beharko gara. Tramitazio erraz horretan jasoko dugun pasahitza izango da bigarren bonu erosketa egitera goazenean erabili beharko duguna. Ondo gogoan hartu beraz.

“Usurbilgo kaleak bizirik nahi ditugu”

Egitasmo honen sustatzaileek argi utzi nahi duten kontu bat; ikusiko duzuen moduan, web orri berri hau ez da erosketak online egiteko plataforma bat, erosketa bonu hauek eskuratzeko ataria baizik. Bonuak

erosita, orain arte bezala, bonu hauek xahutzeko hautatu dugun saltokietara joan beharko da. “Usurbilgo kaleak bizirik nahi ditugu, herritarrek dendetan erosketak presentzialki egiteak gure erronka izaten

jarraitzen du”, nabarmendu dute. Deskontudun bonuak xahutzeko 2020ko abenduaren 31ra arteko tarteak izango dugu.

30 dira momentuz, egitasmo honekin bat egin duten herriko saltokiak. Aurrerago gehiago

izan daitezke; “bigarren fase batean, konfinamendu garaian itxi beharrik izan ez zuten dendak gehitzen badira, erakusleirio zabalagoa eta aberatsagoa izango da”, sustatzaileen esanetan.

Usurbilgo merkatariak: “Herri bizitza mantentzeko aukera on bat duzue orain”

Covid19-ak sektorea gogor kolpatu duela nabarmentzeaz gain, egitasmo honen onurak goraipatu eta erosketa bonuen ekimen honetan parte hartzea deitzen dituzte herritarrek Udalak eta tokiko merkatariak.

“Kolpe handia izan da guretzat, gure langileentzat”, zioen Artzabalen ile-apaindegi zerbitzua eskaintzen duen Ane Loidik. Covid19-ak eragin dien zailtasun eta etenaldiei aurre egin ordea eta “gehienok martxan gaude. Gure protokoloak martxan jarri ditugu”. Konfinamendu osteko garai “ezberdin” honi ilusioz ekin diotela nabarmentzen zuen Loidik, iragan asteko aurkezpen ekitaldian.

“Herri bizitza mantendu nahi dugu”

“Halako laguntza bat eskertzekoa da”, zioen Loidik Udalari zuzenduta. “Herri bizitza mantendu nahi dugula ikusten da”, gaineratu zuen. “Animatu denok. Aukera ederra duzue”.

Erakusleio fisikoen garrantzia

Ildo beretik mintzatu zen bai-



Lehen lau egunetan erosketa bonuen erdiak saldu ziren gertuago.eus webgunearen bidez.

SALOME PORTU

Online plataforma berriko erakusleio birtuala txalotu arren, “ez dugu ahaztu behar ze garrantzitsuak diren herriarentzat erakusleio fisikoak”

ta Santueneko Aialde-Berri sagardotegiko arduradun Salome Portu ere. “Aukera oso ona da erakusleio birtual hau”. Bai herriko saltokiak, sektoreko langileak eta Usurbildik atera gabe, herrian bertan eskuratu daitezkeen produktuak ezagutzeko. Etorkizunean sendotzen

joango den proiektu bat dela ikusita, baikor agertu zen. Halere, online plataforma berri honetako erakusleio birtual hau txalotu arren, gogorarazi zuen, “ez dugula ahaztu behar ze garrantzitsuak diren herriarentzat erakusleio fisikoak”. Portuk nabarmendu zuenez, “garrantzitsuena horiek bizirik mantentzea da”, herri bizitza duin bat izateko.

Konfinamendu asteetara atzera begira jarrita, Urdaiaगतिक Kaxkora jaistean herriak zuen panorama tristea gogorarazi zuen. “San Estebanetik herrira jaisten nintzenean penagarria zen saltoki guz-

tiak itxita ikustea, terrazarik gabe...”.

Bonu ugari saldu dira dagoeneko

Lehen lau egunetan ia 30.000 eurotarainoko salmentak izan dira. “Kopuru horretatik 23.500 euro inguru herritarrek egin dako erosketen bidez lortutakoa izango da, eta udalak ia 5.900 euro gehiago bideratuko ditu, herritarrek jasotako %20 ko deskontuaren adierazle”. Egitasmoaren lehen fase honetan parte hartzen ari diren 30 establezimenduek salgai jarri dituzten bonu guztiak erosten baditugu, “60.000 euro batuko lituzkete guztien artean”.

Usurbilgo Udala: “Inoiz baino gertuago behar gaituzte”

Latza izan da asteotan saltokietako “pertsianak jaitsita ikustea”. Halere, “herriko merkatariak egindako ahalegin eta esfortzu handiaren ondorioz, herrian modu seguruan egin ahal izan ditugu erosketak, herritarren osasuna bermatzeko hartutako neurrien ondorioz”, Agurtzane Solaberrieta alkateak iragan asteko Sutegiko aurkezpenean nabarmentzen zuenez.

Orain, osasuna lehenetsita, “herria berriz bizitza tokatzen

zaigu”. Erronka hau betetzea ordea, elkarlanetik bideratu behar dela nabarmentzen du.

Herritarrei alkateak gogorazi nahi die “tokiko merkataritza eta zerbitzuak beti egon dira herritarrengandik gertu. Orain guri dagokigu haiek zaintzea eta gu gertu sentiaraztea”. “Gertuago” da hain zuzen, Udalak herri merkataritza eta ostalaritzarekin elkarlanean abiatu duen egitasmo berriaren aldarria. Horregatik orain, “Usurbilgo Udalak garbi

du; testuinguru honetan, tokiko merkataritza zaindu eta babesteaz gainera, sustatzea ere badagokigu”, zioen alkate Agurtzane Solaberrieta.

Lehendik zaila zen egoera, zailagoa orain

74 establezimenduek jarduera eten behar izan dute; sektoreko 248 langileengan, enplegu osoaren %70ean eragin du krisialdiak, eta zuzeneko eragin ekonomikoa 3 milioi euro ingurukoa izan da.

Horregatik, Udalak herriko saltokiekin batera abian jarri dute gertuago.eus erosketa bonuak eskuratzeko webgune berria. “Guztira 400 euroko ekarpena egingo dio Udalak establezimendu bakoitzari. Bonu guztiak salduta, establezimendu bakoitzari 2.000 euroko fakturazioa eragingo lioke. Eta herritarrek gehien ez ere 200 euroko deskontua jasoko dute, hau da 2.000 euroko bonu erosketa egingo duela esan nahi du horrek”.

Erraustegia geratzeko parodia, gehien sortu eta gutxien birziklatzen duen Donostian

Hondakin gehien sortu eta gutxien birziklatzen duen Gipuzkoako udalerria erraustegia bere lurretan kokatua duen Donostia dela salatu zuen Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, ekainaren 5eko Ingurumenaren Nazioarteko Egunean hiri-buruko udalaren atarian egin zuen parodian.

Beste behin, erraustegia salatu zuten Donostiako Udalaren atarian, “negozio pribatu kutsagarria delako, mila eta bat arrazoi daudelako aurka egoteko, tartean, alderdi errausleek ez dutela sekula serio birziklapena bultzako beren herrietan, halako enpresa multinazionalaren txontxongilo direlako eta erraustegiak beti jana behar duelako”.

Donostiako eta Gipuzkoako agintariez moztortuta eta edukiontzi baten bueltan, Gipuzkoako beste udalerrri batzuekin alderatuta Donostiako hondakinen kudeaketa kaxkarrak islatzen zituen zabor poltsez inguratuak parodia mo-



Ezagutza emandako datuekin, arduragabetzat jo zituzten Donostiako eta Gipuzkoako agintariak.

dukua egin zuten.

Gehien sortu, gutxien birziklatu

Herrialdeko biztanleriaren laurdena biltzen duen Donostiak egun, Gipuzkoan pertsonako hondakin gehien sortu eta gutxien birziklatzen duen udalerria izaten segitzen duela salatu zuten, “askogatik gainera”. Mugimenduaren esanetan, “lo-tsa-ga-ri-a. Non eta klima aldaketaren aurka dagoela esan eta erraustegi bat eraiki berri duen hirian. Ez da oso azkarra izan behar ulertzeko zergatik agintariek ez duten indarrak jartzen

herritarrek hobeto bereiz ditzaten hondakinak”.

Usurbilen gaikako bilketa ia %90ekoa da, Donostian %42an dabilta. “Oso gutxi da”, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren esanetan.

Ezagutza emandako datuekin, arduragabetzat jo zituzten Donostiako eta Gipuzkoako agintariak. “Arduragabe zini-ko hutsak zarete Eneko Goia, Markel Olano eta Jose Ignacio Asensio”.

Hondakinen bilketa datuak plazaratzearekin batera, “hondakinaren kalitatearen bilakaera markatuko duen ka-

rakterizazio bat egin eta horren emaitza argitaratzea” eskatu zuten, “zertan eta zenbat daukagun hobetzeko jakiteko, beharrezko datua baita”. Datu guztiak erraustuez.org atarian dituzue.

Arkaitzerrekako isurketaren harira, Jose Ignacio Asensioren agerraldi eskaera

Maiatzaren 9an Zubietako Arkaitzerrekan hilik agerturiko ehunka arrainen harira, bertan izandako isuria argitzeko GHK-ren lehendakari eta foru ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensioren agerraldia eskatu du EHBilduk. Gipuzkoako Batzar Nagusietan argibideak ematea galdegin dute koalizio-tik. Kezkagarritzat jo du oraindik probaldi fasean den erraustegiak “bere lehen istripu larria eduki izana”. EHBilduk gogorarazi du GHK-k lehenbizi erraustegiak isuri horrekin zerikusirik izan zuenik ukatu zuela, baina azkenean, onartu zuela erraustegia kudeatzen duen enpresa izan zela amoniako isuri horren erantzulea.

GuraSOS: “Foru Aldundiak adierazitakoa gezurtatu egin du Europak”

Europak erraustegi proiektuaren kudeaketa babestu zuela esan zuen Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuak maiatzean, eta honenbestez, GuraSOSek 2018an eginiko eskaerak alboratu zituela. Herri plataformaren esanetan ordea, “Asensiok gezurra esaten du eta modu eskandalagarrian manipulatzen du”.

Europatik heldutako erantzuna oso argia dela ohartarazten du GuraSOSek. “Europak ez du erabakirik eman, Europak ez du GuraSOSen eskaera errefusatu, eta ez du Diputazioaren kudeaketa ba-

bestu”. Batzordeko presidentek sinaturiko gutunak, Zubietako erraustegiaren harira GuraSOSek egingako eskaera ontzat ematea erabaki zuela dio 2018ko azaroan. Europako Batzordeari helaraziko ziola gai honi buruzko aurretiazko ikerketa bat egiteko eta Ingurumen, Osasun Publiko eta Elikagai Seguritasuneko Batzordeari jakinaraziko ziotela.

2020ko maiatzaren 15ean Eskaeren Batzordeak duela bi urteko GuraSOSek aurkezturikoaren Europako Batzordearen erantzuna jaso zuela dio gutunak. Argi uzten du, eran-

tzun horrek ez du islatzen Eskaeren Batzordeak hartutako erabakirik.

Alderantziz, behin tramitera onartuta, eztabaida baten bidez, idatziz edo ohiko bilkura batean aztertuko direla jakinarazten da. GuraSOSi bere eskaerak egin dezakeen bidez informazio joango zaiola iragartzen du Europako Eskaeren Batzordeak.

GuraSOS: “Erraustegiak hainbat arazo juridiko ditu”

Aldundia “desleialtasun instituzionalean jausi dela” irizten dio GuraSOSek. “Europako

Parlamentuaren sinesgarritasuna kaltetzen du hiritarren aurrean, eta bere independentziarekiko interferentzia eta esku-hartzea suposatzen du”.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren “amarru trakets hau Zubietako erraustegiaren ezarpen prozesuaren ahu-lezia testuinguruan” kokatzen du GuraSOSek. “Izan ere, egitasmoak (erraustegiak) hainbat arazo juridiko ditu, egitasmoarentzako gero eta kezkarriagoak direnak eta hurrengo asteetan azalaraziko ditugunak”.



Idoia Torregarai Martija

Kanta herrikoiaeren le-
tra aldatu dut izen-
buruan, bai, baina
badut fundamentuzko arra-
zoi bat lizentzia “artistiko”
hau hartzeko. Koronabirusak
ikastetxeak itxi eta milaka
haur eta gazte etxetik ikas-
tera behartu ditu. Irakasle
zein familiak errealtate berri
honetara moldatu behar izan
dugu, eta beti ez da erraza
izaten. Horregatik, ezohiko
egoera honi aurre egiteko
umorea tresna eraginkorra
dela esatera natorkizue beste
behin. Zergatik?

Gatazkei aurre egiten laguntzen digulako

Seme-alabak hazten eta hez-
ten ditugun bitartean, lis-
karrak, gogo falta, nahasme-
na eta nekea agertzen dira
askotan. Umorea erabiltzeak
une horietako esperientzia
askoz ere eramangarriagoa
izaten lagunduko digu, bai
eta arrakasta handiagoarekin
maneatzen ere.

Seme-alabentzat eredu garelako

Gure seme-alabekin umo-
rea aplikatzen dugunean,
bizitzari eta arazoei aurre
egiteko tresna eraginkor bat
erabiltzen erakusten ari gara
eta errealtatearekin erlazio-
natzeko modu hori berega-
natzen joango dira, kontu-
ratu gabe.

Haurrak ikas zazue, umorez bizitzen



“Gure seme-alabekin umorea aplikatzen dugunean, bizitzari eta arazoei aurre egiteko tresna eraginkor bat erabiltzen erakusten ari gara”. Argazkia: Allen Taylor (unsplash.com)

AUTOESTIMURAKO ONA

**“Espazio horiek haurrekin
partekatzen ditugunean,
endorfinak daude etxeko
atmosfera emozionalean,
eta hori oso garrantzitsua
da haurrak autoestimuz
hazi eta euren ingurunea
segurua dela senti
dezaten”**

Haurrekin kalitatezko denbora pasatzera bultzatzen gaituelako

Gurasoek umorea protagonis-
ta izango den espazioak eta
denborak bultzatu, sustatu
eta bultzatu behar dituzte.
Horretarako oso garrantzitsua

da kontaktu fisikoa, begirada,
laztana, irribarrea, barrea, jo-
lasa...

Denok sentitzen garelako hobeto

Espazio horiek haurrekin par-
tekatzen ditugunean, endor-
finak daude etxeko atmosfera
emozionalean, eta hori oso
garrantzitsua da haurrak auto-
estimuz hazi eta euren inguru-
nea segurua dela senti dezaten.
Gainera, ezinbesteko ‘koltxoia’
da, bidearen parte diren ga-
tazka eta konfrontazio une go-
gorrenak arintzen dituen.

Baina nola txertatu dezakegu umorea gure familian? Hona hemen ideia batzuk:

■ Jolastu seme-alabekin ahal

duzun guztia. Inoiz kontu-
ratu al zara animaliek nola
jolasten duten beraien ku-
meekin? Ba hori egitea oso
onuragarria da!

■ Irribarre egin eta begietara
begiratu.

■ Hazi eta ulertu ahala, iro-
nia erabiltzen erakutsi.

■ Asmatu elkarrekin istorio
dibertigarriak.

■ Esaiezu nola joan zaizun
eguna modu zentzugabean,
gehiegikeriak, elementu zen-
tzugabeak... erabiliz.

■ Egin kirola aire zabalean.

■ Jauzi egin ohe gainean.

■ Eta abar. Asmatu.

Beraz, gogoratu: Haurrak
umorez hazi, bizitza ez izate-
ko hain gazi!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Idoia Torregarai Martija

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Usurbilgo Jai Batzordea: “Nahi bezala ezin zen ezer egin”

Beste toki askotan bezala, herriko jaiak bertan behera utzi behar izan dituzte. Beste tokietan ez bezala, Kultur Bira oparo bat prestatu dute. Usurbilgo Jai Batzordeko bi kidek hainbat azalpen eskaini dizkigute.

NOAUA! “COVID19-ak eragindako osasun krisia medio, Santixabel jaiak ezingo ditugu nahi genituzkeen bezala ospatu”. Agiria irakurrita, zentzuzkoa dirudi bertan behera uzteko erabakiak. Dena den, ez zen erraza izango.

Aitor Agirre: Oso zaila. Orain arte Jai Batzordera joaten ginen eta talde bakoitzak berea proposatzen zuen. Aurten, osasun krisiaren ondorioz, talde batzuk ezin zuten beren ekintza egin. Eta beste batzuk, beren proposamena egin ahal izateko, proposamena bera eraldatu beharra zuten. Hitz gutxitan, nahi bezala ezin zen ezer egin.

Euren ekintza egin ezin zutenek alde egin zuten eta geratu ginenok pentsatu genuen ekitaldi batzuk antolatzea baina beste modu batean. Gure saioa bakarrik defendatu beharrean, egitarau bat orokortasun baten barruan bideratu zitekeela uste genuen. Eztabaida handi samarra egon zen.

Auzoetako jai batzordeekin elkarlanean

NOAUA! Santixabelak bertan behera utzi eta Kultur Bira iragartzeko agirian, jai batzorde gehiago ageri dira. Horrek zer esan nahi du, San Esteban, Santuenea, Atxegalde eta Aginagan ez direla festak egingo?

Aitor Agirre: Ez du zerikusirik. Uztaileko Kultur Bira antolatzekeo batu gara. Izendapena (Kultur Bira) gehiago izan da herrian zegoen giroarengatik.



Santixabel jaiak bertan behera geratu dira. Horretaz gain, Kultura saileko 2020ko diru-laguntza guztiak berformulatu egin dira.

LUKEN ARKARAZO

“Web orrialde berri baten bidez eskuratu behar dira Kultur Birako sarrerak: usurbilkultura.eus”

Luken Arkarazo: Ideia bera udal proposamen batetik dator. Koronabirusaren ondorioz era zaurgarrian geratu diren sektoreak indartu ditzagun. Tokiko merkataritza, arlo soziala eta kultura sektorea sustatuko ditugu, alderdi politiko guztiek eginiko agerraldian esan zen bezala. Eta Santixabelak beste modu batean planteatzeko proposamena hortik dator, kultu-

raren sektorea lehenbailehen berpiztearen ideia horretatik.

Hortaz, Jai Batzordetik haratago doa planteamendua.

Luken Arkarazo: Bilerak ez dira Santixabeletako Jai Batzordeko kideekin bakarrik egin, kultur agente guztiekin baizik. Kultura Saileko 2020ko udal diru-laguntza guztiak berformulatu beharra zeudelako. COVID19 birusa baino lehen, aurrekontuak bideratuta zeuden. Baina diru horiek banatzeak ez zuen inolako zentzurik, errealitate guztiz diferente baten aurrean gaudelako orain. Ez zuen zentzurik egingo ez diren ekintze-

tarako diru horiek banatzea. Kultura bultzatu nahi dugu baina ez dugu dirurik banatuko gero ez bada egoki erabiliko. Eragileekin bildu ginen eta ekitaldi guztiak bertan behera utzi beharrean, erdibideko soluzio bat topatzera animatu genituen.

Egoera berrira egokitzeko gonbitea egin zaie kultur eragileei.

Luken Arkarazo: Hori da, ekitzak berformulatzeko proposatu zaie. Unean uneko dekretuen bidez, Udalak laguntzeko presuntasuna du. Elkarteeekin bildu ahala, ikusi genuen protokolo bat egin beharra zegoela. Bilerak batzuk egin ditugu Udal-tzaingoarekin eta brigadakoe-kin. Oinarritzko neurriak denok dakizkigu, higiena, distantzia soziala, aforoak... Protokolo hori zehaztea inportantea izango da uztailean zehar egingo dugun Kultur Bira programatzeko garaian.

Santixabeletako aurrekontuarekin finantzatzeko da uztaileko Kultur Bira

“Jaietarako musika talde guztiak lotuta genituen, bertsolariak, soinu ekipoekin aurrekontu guztiak eginda... Hauek guztiak kale gorrian ez uztea zen helburua”, adierazi digu Luken Arkarazo kultura zinegotziak. “Kultur Itzalaldian egin ziren aldarrikapenekin bat eginez”.

Uztaileko eskaintza zabala izango da. Jai eredutik haratago doana. “Bernardo Atxagaren hitzak datozkit gogora, kulturaren bideak Usurbilera eramango zaitu... Ba Usurbil kultur herria bada, orain da demostratzeko garaia”, adierazi digu Arkarazok.

eremuen erabilera guk baino hobeto ezagutzen dutelako.

Beraz, Kultur Bira elkarlan baten emaitza izan da.

Luken Arkarazo: Hori da. Beste jai batzordeek ordezkaritza dute Usurbilgo Jai Batzordean, Aginagakoak izan ezik. Eta egitasmoari benetako zentzua emateko, Kultur Bira uztail osora zabaldu dugu.

“Usurbilgo Kultur Biraren egitaraua laster aurkeztuko dugu”

NOAUA! Kultur Bira uztailean zehar egingo da eta herri osoan barreiatuta, ezta?

Aitor Agirre: Lehen helburua da higie eta segurtasun neurriak errespetatzea. Ikusi zen jende pilaketa handienak kaxkoan egon zitezkeela eta hortik aldentzea proposatu zen.

Protokoloa zehaztea buru-hauste handi bat izango zen.

Luken Arkarazo: Kaxkoan egiten diren ekitaldiak festa giroarekin identifikatzen ditugu. Eta hori ezin da egin. Taberna eta txosna inguruetan, arriskua totala da.

Aitor Agirre: Gatazka hor sortzen da. Ahal den aforo handiena nahi dugu baina segurtasun neurri guztiak betez. Horregatik saiatu gara espazio egokienak bilatzen. Eta estalia eta handi samarra, espazio handirik ez da Usurbilen.

Kultur Biraren egitaraua noiz jakinaraziko da?

Luken Arkarazo: Egitaraua eta logoa martxan daude eta ekitaldien %80a lotuta dago. Aste honetan itxita izango ditugu ekintza guztiak. Kultur Bira osoa laster aurkeztuko dugu.

Aitor Agirre: Ekitaldietarako



“Egitaraua eta logoa martxan daude eta ekitaldien %80a lotuta dago. Aste honetan itxita izango ditugu ekintza guztiak”.

BI GUNE NAGUSI

“Uztailaren 2, 3 eta 4an, bi ekitaldi handi egingo dira aldi berean. Santuenean karpa handi bat jarriko dugu, eskubaloizelaian. Beste gunea Oiardo kiroldegia izango da”

sarrerak eskuratzeko epea ere orduantxe zabalduko da.

“Kultur Birako ekitaldiak usurbildarrentzat bakarrik izango dira”

Ekitaldi denak doan izango dira. Baina aurretik ez baduzu sarrera lortu, ezingo duzu ber-

taratu. Nola kontrolatuko da hori?

Luken Arkarazo: Plataforma digital bat sortzen ari gara, usurbilkultura.eus. Herritar bakoitzak kontu bat sortu beharko du bertan, eta kontu hori nortasun agiriarekin balidatuko da. Izena eman ahal izateko Usurbilen erroldatuta egon behar duzu. Beraz, usurbildarrentzat bakarrik izango dira ekitaldiak.

Sarrerak lortzeko, erabiltzaile profil bat sortu behar da web orrialdean.

Aitor Agirre: Hori da. Eta etorkizunerako planteamendu bat ere bada. Usurbilgo kulturaren sare digital bat izango da.

Hasteko, herriko artisten gaua

NOAUA! Kultur Birako egitaraua ez dago itxita oraindik. Gutxi asko, nolakoa izango den aurreraterik bai?

Luken Arkarazo: Adin guztietarako ekitaldiak egongo dira.

Aitor Agirre: Haurrentzako saioak, musika mota ezberdineko kontzertuak, bertsolariak, herri kirolak, kultur ekitaldi tradizionalagoak...

Luken Arkarazo: Sortuz Bakar-dadea Isolatuz ekimeneko artistekin abiatuko gara ziu-rrenik. Asmoa da Usurbilgo

sortzaile ezberdinekin hiru emanaldi egitea, hiru gune ezberdinetan eta aldi berean.

usurbilkultura.eus web orria noiz egongo da sarean?

Luken Arkarazo: Datorren astean. Eta orduantxe zabalduko da izen-ematea. Lehen lau egunetan uztailak 2, 3 eta 4ko ekitaldietarako izen-emateak egin beharko dira. Uztaileko beste ekitaldietako izen-emateak zabalik jarraituko dute.

Sarean eman behar da izena. Batzuk hala ere, adinduak bereziki, ez daude horretara ohituta.

Luken Arkarazo: Komunikazio kanpaina bat egingo dugu. Bi euskarri nagusi izango ditu. Izen-ematea zabalitzen den lehen egun horietan adinduen egoitzerara joan eta bertan azalpenak emateko asmoa dugu. Eta bestetik, tutorial txiki bat egingo dugu, bideo bat. Sarrerak nola eskuratu azalduz.

“Ekitaldi denak doan izango dira”

NOAUA! Sarrerak eskuratzeko, Kultur Birako plataforman alta eman behar da.

Luken Arkarazo: Sarrerak ezin ditugu tabernan ezta online jarri. Pikareska ebitatu behar dugu. Lehenengo konektatzen direnek, lehenak iristen direnek abantaila izan ez dezaten. Nola egin behar dugu? Epe bat zabalduz. Jendeak egun batzuk izango ditu izena emateko, modu ireki batean. Eta aforoa gaintuz gero, plataforma digitalak zozketa bat egin beharko du izena eman duten horien artean.

Saio ugari izango dira guztira. Denetan eman daiteke izena?

Luken Arkarazo: Bai. Jendeak ekintza guztietan eman dezake izena. Aforoa ez bada betetzen, email bat jasoko duzu, QR kode batekin. Hori izango da sarrera. Aforoa gaintutako balitz, zozketa egingo litzateke. Bestetik, ekitaldi guztietan eman dezakezu izena baina lehentasun maila handiko bi aukeratu ahal izango dituzu.

Lehentasun gisa zehazteko, zer egin behar da?

Luken Arkarazo: usurbilkultura.eus web plataforman, argi berde batekin seinaltatuz. Aforoa argi berdea eman dioten horiekin beteko da lehen-bizi. Horrekin bermatu nahi da Kultur Birako zure bi ekitaldi gustukoenetan eserleku bat lortu ahal izateko aukera.

Adibidez, lehentasun gisa Joseba Tapiaren kontzertua eta herri kirolak hautatu ditut. Ekitaldi bakoitzean zenbat sarrera lor ditzaket?

Aitor Agirre: Pertsona bakoitzak gehienez ere bi sarrera eskuratu ahal izango ditu. Umeen ekitaldietan nola heldua den sarrerak hartzen dituen, gehienez ere lau sarre-har daitezke.

Ekainaren 18an herri batzarra frontoian, Usurbilgo Larrialdi Mahaia deituta

Usurbilgo Larrialdi Mahaia herri batzar bat deitu zuen martxoaren 17an. NOAUA!n ere eman genuen deialdiaren berri. Pandemiaren ondorioz, bertan behera utzi behar izan zen ordea. “Tratatu beharreko gaia larria eta presazkoa denez lehenbailehen egitea egokiena dela deritzogu. Are gehiago osasuna lehen lerroan jarri zaigun honetan”, diote Larrialdi Mahaioek. Batzarra ekainaren 18an egingo da, arratsaldeko 18:30ean Usurbilgo frontoian.

Deitzaileen esanetan, “egoerak okerrera egin du azken hilabeteotan. Denok dakizuen bezala, istripu kimiko larria gertatu zen maiatzaren hasieran eta Arkaitzerrekan hondamendi ekologikoa eragin zuen erraustegiak ehundaka arrain eta angila hil zituen”.

Usurbilgo Larrialdi Mahaia-
ren ustez, “Zaldibarren gertatutakoak eta erraustegiaren azken istripuak alarma guztiak piztu dituzte. Susmo txarrenak baieztatzen ari dira eta ez badugu Zubietan edozein hondakin erretzea ekiditen, toxikoak, industrialak eta arriskutsuak direnak ere erreko dituzte”.

Zaldibarrekoa gertatu zenean, ingurumen eta osasun agintariek “ordu onartu zuten lehen aldiz aste bat itxaron behar dela dioxinen azterketaren emaitzak ezagutzeko. Guri beste gauza bat esan ziguten. Guri esana



Batzarra ekainaren 18an egingo da, arratsaldeko 18:30ean Usurbilgo frontoian.

LARRIALDI MAHAIA

“Gure herriaren izaera, izana eta etorkizuna da jokoan duguna.

Hori horrela, altxa eta elkarrekin aurre egin beharko genioke eta azkar gainera”

ziguten lasai egoteko, dioxinen neurketa etengabea zela eta isuria gehiegizkoa izanez gero momentuan bertan labea itzaliko zutela”.

Zubietan, ingurumen baime-
nak behartzen die soilik urtean 24 ordutan neurtzea (6 orduz, hiruhileko bakoitzeko). “Eta gure kasuan dioxinak 35 urtez jasango ditugu”, dio herriko taldeak, “kalte larriak eragiteko moduan, beraien esanetan”.

Herri plataformaren kezka ez da berria. “TMB planta 2019ko maiatzetik aurrera eta erraustegia azarotik aurrera inolako

baimen eta kontrolik gabe ari dira lanean %85eko kapazidadean”. Baimenik oraindik ez dute martxan jartzeko eta frogaldirako zuten epea urtarilean bukatu zitzaieela dio Larrialdi Mahaia. “Legez kanpo ari dira jardunean! Egoera honetan Ingurumen Sailak ez ditu isuriak kontrolatzen. Hau oso larria da. Larriagoa, dakigunean errustegia oraindik martxan ez jartzearen arrazoia denean isuriaren gehieneko muga ez gainditzea ez dutela lortzen”.

Osasunaren ikuspegitik onartezina dela diote. “Ezin dugu onartu gure haur, nerabe, emakume haurdun, gaixo eta adineko herritarren osasuna arriskuan jartzea”.

Usurbilek jasango dituen kalteak ez dira soilik osasunari eta ingurumenari dagozkionak izango, “bestelakoak ere jasoko ditu: ekonomikoak, soziologikoak, kulturalak eta abar”.

Arkaitzerrekan gertaturikoa argitzeko eskaera

Isurketa kutsakor baten eraginez, erraustegiaren ondotik igarotzen den Zubietako Arkaitzerrekan ehunka arrain hilik agertu ziren maiatzaren 9an. Gertaturikoa argitu eta erreka bera lehengoratzea eskatu dio orain Eguzki Euskal Herriko talde ekologistak eta antinuklearrak Donostiako Udalarari. Aipatu erreka ia oso-rik Gipuzkoako hiriburuaren lurretan kokatua baitago.

Beste alde batera begiratzeari utzi eta neurriak hartu ditzala eskatu dio Eguzki talde ekologistak Donostiako Udalarari: “lan egin dezala gertaerak argitzeko, erantzukizunak zehazteko, antzekorik berriro ez gertatzeko eta, batez ere, Arkaitzerrekaren lehengoratze-lanetan modu proaktiboan jokatzeko. Horretarako esku-menak badiu eta”.

Gogoan izan, Zubietan Lantzen elkartarekin eta Anerreka Ingurumen Elkartarekin batera, hilabete hasieran Arkaitzerrekan gertaturikoa salatu eta ikertzea eskatu zioten Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltzari.

“Donostiako Udalak ez du ezer esan”

Orain arte hiriburuko udalak erakutsitako isiltasuna nabarmendu du Eguzkik. “Isurketaren larria ikusita, mobilizatu zitezkeen eragile guztiak mobilizatu dira. Fiskaltzak gaia mahai gainean du, Anerreka, Zubietan Lantzen eta Eguzkiren ekimenez, isurketa ingurumenaren aurkako delitua izan daitekeelako. Paradoxa bada ere, Donostiako Udalak ez du ezer esan, errekarrekin eta erraustegiarekin berarekin zerikusirik izan ez balu bezala”. Nahiz eta Arkaitzerreka ia oso-rik Donostiako lurretan kokatua egon.

Herri batzarra frontoian egingo da

Usurbilgo Larrialdi Mahaia deituriko batzarra irekia da. “Historian gertatu ohi den bezala, eskubideak lortzeko, herritarroiek elkartu eta aurre egitea dagokigu. Herritarrok bat eginik eta tinko”.

Asanblada ahalik eta zabalena izatea nahi dute, “eman

beharreko erantzuna eztabaidatu eta erabakitzeko. Antolatutako gaitzean eta elkarrekin erabaki eman beharreko pausoak. Gazte, jubilatu, ingurumen eta osasun arloko eragile, irakas-kuntzakoak, dendariak, kirol eta kultura elkarteetakoak...”.

Ekainak 18 osteguna

■ Ordua: 18:30.

■ Non: Usurbilgo frontoian.

■ Oharra: Batzarra egiteko, segurtasun neurriak jarraituko dira.

■ Deitzailea: Usurbilgo Larrialdi Mahaia.



Joxe Mari Irazusta

Donostiako udal gobernuaren utzikeriak zuritzen du erraustegiaren beharra

Gipuzkoan, errausketa-rik gabeko hiri hondakinen kudeaketa, bideragarria izateaz gain, jasangarriagoa, osasungarriagoa eta merkeagoa dela esanaz urteak daramatzagu. Baina birzikla-ezina “omen” den hiri hondakinen zatiki garrantzitsu horri, hau da, errefusari, zer egin behar zaion ez dugula proposatzen erantzuten digute beste hainbat aldiz.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsортzioak (GHK), bere webgunean maiatzaren 4ean jasota dauka, 2019ko Gipuzkoako hiri hondakinen gaikako bilketako emaitzak jasotzen dituen berria. Ikus dezagun bada, Gipuzkoan nahasian bildutako errefusaren osagaiak zeintzuk diren. Errefusa baita, hiri hondakinen arazo nagusia, aspal-diko urteotan Gipuzkoako gizarteak ezbaian jarri duen erraustegiaren azpiegituraren funtsezko arazoia.

Gipuzkoa osoan, nahasita, errefusa bezala, 138.000 tona bildu ziren 2019an, due-la hamar urte baino, ehun mila tona gutxiago. Urtez urte, jaisten doa errefusaren kopurua. Baina benetan, hori guztia errefusa al zen? Aipatutako albistean esaten da, 2019an Gipuzkoan sortutako hondakin organiko edo bio-hondakinaren %47 bakarrik bildu zela bereiztuta. Alegia, organikoaren beste %53a, nahastuta, errefusa bezala jaso zen. Eta hori zenbat da? 63.000 tona baino gehiago. Hau da, errefusa bezala bildu zenaren ia erdia materia organikoa izan zen.



“Urtez urte, jaisten doa errefusaren kopurua. Baina benetan, hori guztia errefusa al zen?”. Argazkia: GHK.

JOXE MARI IRAZUSTA
“Usurbildar bakoitzak urtean 70 kilo errefusa sortzen dituen bitartean, donostiarrak 282 kilo sortzen ditu. Eta hori ez da donostiarra usurbildarra baino narrasagoa delako, udalerri batean eta bestean gaikako bilketarako dauzkagun bilketa sistema ezberdinen eraginkortasunaren ondorio baizik”

Kopuru handiena bai, baina ez da materia organikoa bakarrik errefusarekin nahasian biltzen dena. Paper-kartoia, ontzi arinak eta beira nahasiak (errefusa bezala jasoak), osatu zituzten beste 32.000 tona. Gaikako bilketako lau frakzio garrantzitsuenek (organikoa, paper-kartoia, ontzi arinak eta beira), osatu zuten 95.000 tona, 2019ko errefusa guztiaren %68a. Hauei gehituta, oihalak

eta beste birziklagarri batzuk, esan genezake, Gipuzkoan errefusaren izenpean nahasian bildutako hiri hondakinen artean, gutxienez 100.000 tona birziklagarriak zirela, eta, benetan errefusa, 40.000 tona baino gutxiago izan zela. Horregatik diogu, errauste-planta soberan dagoela, gaikako bilketa eraginkorrak ezarrita, errefusaren benetako kopurua oso urria delako, eta horren tratamendurako askoz azpiegitura txikiago, merkeago, osasungarriago eta eraginkorragoak badaudelako.

Errefusaren osaerak esaten digu, benetan zein den egiten den gaikako bilketaren kalitatea, eta datu hauek eskutan, Gipuzkoan egiten den gaikako bilketak, oraindik, asko dauka hobetzeko. Noski, udalerri eta herritar guztiak ezin dira parean jarri, diferentziak oso larriak baitira udalerri batzuek eta besteak erkatzen direnean. Gipuzkoan gaikako bilketa eskasa egiten duten udalerri guztien buru, bere buruari 5 izar jartzen dizkion Donostia

hiriburua dago. Paperean bakarrik gelditzen diren, ingurumena, ekonomia zirkularra eta klima larrialdia babesteko adierazpenak sinatzen zalea den arren, gero, kutsatzeko aukera libre ematen baitaio herritarrari Gipuzkoako hiriburuan, erosotasuna, beste edozerren aurretik jarritz.

Horrela gertatzen da, usurbildar bakoitzak urtean 70 kilo errefusa sortzen dituen bitartean, donostiarrak 282 kilo sortzen dituela. Eta hori ez da donostiarra usurbildarra baino narrasagoa delako, udalerri batean eta bestean gaikako bilketarako dauzkagun bilketa sistema ezberdinen eraginkortasunaren ondorio baizik.

Datu hauek ikusita, garbi dago, udalerri guztiek daukatela gaikako bilketa hobetu beharra, batzuek besteek baino gehiago, noski. Eta egin behar horretan, Usurbil ez dago salbuetsita. Joan zen martxoan Usurbilgo komertzio eta industria poligonoetan biltzen den errefusari egin zitzaion kalitatearen neurketaren emaitzetan ikusten da, %31 material birziklagarria dela: bio-hondakinak %22 eta ontzi arinak %9. Beraz, gure herrian errefusa gehien sortzen den komertzio eta industria poligonoetako bilketan hobekuntzak eginaz, oraindik gehiago hobetu genezake herri osoan daukagun (%85,69) gaikako bilketa birkainaren emaitza.

Joxe Mari Irazusta,
Erraustetaren Aurkako
Mugimenduko kidea

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berriua berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabilta gurasoei baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarekin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Ordutegia zehazteko daukagu. 658706443

Pertsona euskaldun bat behar da Antiguon, 4 eta 5 urteko umeak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 629553497

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Ekaina, uztaila eta abuztuaren hurren zainzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat, interna bezela, lan

egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deituko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560

Betza
Adinekoak zainduko nituzke. Es-
perientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zain-
tzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako,
adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz.
Garbiketan edo pertsona hel-
duak zaintzen, arratsaldetan edo
gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak
zaintzeko, arratsaldetan edo
gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo
pertsona helduak zaintzen. Se-
gituan lanean hasteko moduan.
631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo
pertsona helduak zaintzen. Se-
gituan lanean hasteko moduan.
632 818 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz.
Pertsona helduak zaintzen edo
garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak
edo umeak zaintzen, garbiketan,
ostalaritzan edo plantxa egiten.
676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten
bila nabil alokairuan altzaririk
gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko
emakume esperientzia han-
dia duena eskeintzen da. Baita
ere etxeko garbitasunerako.
602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo

umeak zaintzen, edo garbiketan.
Berehala lanean hasiko nintzate-
ke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo
umeak zaintzen, edo garbiketan.
Berehala lanean hasiko nintzate-
ke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo
umeak zaintzen, edo garbiketan.
Berehala lanean hasiko nintzate-
ke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil,
umeak edo helduak zaintzeko
edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak
edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak
edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak
zaintzeko prest dagoen neska
usurbildarra naiz; gaztea eta

euskalduna. Edozer dela ere, dei-
tu edo bidali whatsapp mezu bat
688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala
lan egin dut, garbiketa laneta-
rako titulua dut, "catering"ean
ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak
zaintzen lan egingo nuke. 631
864 292.

Pertsona helduak edo umeak
zaintzen, edo garbiketan lan
egingo nuke. Tel. 617 748 714.

BESTELAKOAK

Txirrinda bat opari. 9-12 ur-
tekoentzako. 675 712 383.
Helbide honetan duzue ikusgai:
<https://libb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarinara Japo-
niarrak (txoriak) ditut salgai.
659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usur-
bilgo pertsona baten bila nabil,
DBH tean ikasten ari den nire
alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat
salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko
tresna daukagu salgai. Itziaz
637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605
783 227.

Estilo guztietako txirikordak
(trenza) egiten dira. 658706345,
60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide be-
rriak sartzeko plaza libreak dau-
de. Edozein zalanntza argitzeko
669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea
naiz, plaza saldu nahiko nuke.
699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pa-
tinetak, liburak... Atalluko
Garbigunean, doan hartu dai-
tezke. Astelehenetik ostiralera:
10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai
egunak ez diren larunbatetan:
9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 11	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 12	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte	
Larunbata 13	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 14	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astelehena 15	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte	
Asteartea 16	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Asteazkena 17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

Ekainak 11 - Ekainak 21

Osteguna 18	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 19	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 20	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 21	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

15 astelehena

- **Errigoraren produktuen bilketa.** 9:00-14:00, NOAUA! Kultur Elkartaren egoitza.
- **Zorione Mendez "Marrak"** uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.

16 asteartea

- **Errigoraren produktuen bilketa.** 9:00-14:00, NOAUA! Kultur Elkartaren egoitza.
- **Zorione Mendez "Marrak"** uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.

18 osteguna

- **Usurbilgo Larrialdi Mahaiak deituriko herri batzarra frontoian.** 18:30ean hasiko da.
- **Zorione Mendez "Marrak"** uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.

Errigoraren produktuen banaketa datorren astean egingo da

Konfinamendu bezperatan itxi genuen Errigoraren "Nafar hegoaldeko uza eskutik eskura" kanpainako barazki-kontserbak, oliba-olio bidoiak, arroza eta pasta eskatzeko epea. Banaketa bi txanda ezberdinetan egingoa zen asmoa; baina osasun krisialdiak prozesua atzeratu du. Eskatu dituzuen produktu guztiak, azkenean txanda bakarrean jaso ahalko dituzue. Datorren aste hasieran; ekainaren 15ean edo 16an, 9:00-14:00 artean, NOAUA! Kultur Elkartaren Bordaberri 3ko egoitza.

Ordainketak ahal den heinean aurrez bideratzea eskatzen da. "Herrietan auzolanean dabilzan kideen lana erraztu eta haien zein zure segurtasuna bermatzeko eskaera online ordaintzea gomendatzen



Ekainaren 15ean edo 16an, 9:00-14:00 artean, NOAUA! Kultur Elkartaren egoitza.

dizugu", Errigoratik ohartarazi dutenez. Eta "zure eta auzolanean dabilzan kideen segurtasunerako, produktuak jasotzera zoazenean jantzi maskarila eta jarraitu guneko arduradunaren argibideak".

- Informazio gehiago, errigora.eus atarian.

Euskotren, udako ordutegian

Beste urteekin alderatuta aurtengoan lehenago, aste hasieratik udako ordutegia du indarrean Euskotrenek. "Bizi dugun egoera kontuan hartuta, Euskotrenek udako zerbitzuak aurreratzea erabaki du modu efizienteagoan erantzuteko gure

erabiltzaileen mugikortasun-beharrei". Usurbil zeharkatzen duten zerbitzuei dagokienean, asteburu eta jaiegunetakoak indartuko ditu Euskotrenek.

- Informazio gehiago: 944 333 333 / euskotren.eus

Datozenak

Konfinamenduak eraginako emozioen lanketa

Covid19-ak ekarri digun osasun krisialdiak eta konfinamenduak eragindako emozioen lanketarako tailerra antolatu du emakumeen ahalduz ikastaroen baitan Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak ekainaren 19 eta 20rako. Saio hauetako bat baino gehiago bideratu izan duen Pepa Bojo psikologoak gidatuko du "A través del laberinto" izeneko tailer trinkoa Potxoenean. 12 orduko iraupena izango du; hilaren 19an 16:00-20:00 artean eta hilaren 20an 10:00-18:00 artean eskainiko da. Doakoa izango da, 14 laguntzako lekua egongo da, kopuru honetarako bermatu daitezke eta soilik segurtasun neurriak.

- Izena ekainaren 16a baino lehen eman beharko da:

943 377 110

parekidetasuna1@usurbil.eus



Pepa Bojok eskainiko du eta ekainaren 16a baino lehen eman behar da izena.


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil


Patria
jateketa
· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Usurbilgo merkatariak gertu gaude!

www.gertuago.eus

gertu@go



Aginaga sagardotegia



Atxega jauregia




Artzabal jatetxea



Juantxo burdindegia



Saizar sagardotegia



Inoiz baino (h)Urbil-ago.

Gure zerbitzuen moda, edertasun,
kirol, elikadura, aisialdi, sukaldaritza
eta erosotasun guztiarekin,
zure bisita ezin hobea izan dadin.
Zugan pentsatzen dugu.

Urbilen itxaroten zaitugu!